

2002ko MARTXOAREN 11ko BILKURA NAGUSIA

Lizartzan, bi mila eta biko martxoaren hamaikan, gaueko bederatziak direnean, Alkatea: Jose Antonio Mintegi Arrate; Udalkideak: Ana Ederra Irurzun, Antton Balerdi Garmendia, Nerea Altuna Zubeldia, Lurdes Altuna Arritegi, Lontxo Goikoetxeaundia Martinez, Xabier Balerdi Urdampilleta; Idazkaria: Ana Jesus Zabala Garmendia eta beste hainbat herritar, Biltzar Nagusian bildu dira, gai hauek erabili direlarik:

1.- AURREKO AKTAREN ONARPENA:

Alkateak, aurreko saioaren aktari ezer esatekorik badagoen galdetu du, eta inork ezer esatekorik ez duenez, aho batez onartu da.

2.- 2001 URTEKO LIKIDAZIOA ETA KONTU OROKORRAREN ONARPENA

ALKATETZAREN DEKRETUA

Idazkari-Kontuhartzaileak osatu duen, Lizartzako Udaleko 2001eko aurrekontuaren likidazioa eta horren dokumentuak aztertu ondoren, eta beraiekin ados egonik, otsailaren 26ko 4/1991 Foru Arauak, Entitate Lokalen Aurrekontuei buruzkoak, 49.3 artikuluan eta abenduaren 1eko 96/1992 Foru Dekretuak, Entitate Lokalen Aurrekontu-Erregelamendua onartzekoak, 60.3 artikuluan, emandako eskumenak erabiliz, hau

EBATZI DUT

Lehena.- 2001eko Lizartzako Udaleko Aurrekontuaren Likidazioa onartzea.
Hona hemen horren laburpena:

KONTZEPTUA	PARTZIALA	GUZTIRA
Altxortegiko Izakin Likidoak 2001-12-31an		4.935.599
Kobratu Gabeko Saldoak, 2001-12-31an	23.129.784	
Kobratu Gabeko Saldoak, itxitako ekitaldikoak	-----	
Kobratu Gabeko Saldoak, Aurrekontuz Kanpok.	271.159	+ 23.400.943
DENERA		28.336.542
Ordaindu Gabeko Saldoak		- 21.359.280
Aurtengo Ekitaldikoak	19.542.783	
Itxitako Ekitaldikoak	-----	
Aurrekontuz Kanpokoak	1.816.497	
ALTXORTEGI-GERAKIN GORDINA		6.977.262
Saldo Kobragaitzak		-----
Altxortegi-gerakin likidoa		6.977.262
Finantzaketa lotua duten gastuetarako altxortegi-gerakina		-----
Gastu Orokorretarako Altxortegi Gerakina		6.977.262

Bigarrena.- Gipuzkoako Foru Aldundiari likidazio-espedientearen kopia bidaltzea, lehen aipatutako foru arauak, 49.5 artikuluan, eta foru dekretuak, 60.5 artikuluan, jasotakoa betez.

Hirugarrena.- Udalbatzarrari dekretu honen berri ematea hurrengo bileran.

2001 URTEKO AURREKONTUAREN KONTU OROKORRA

2001 EKITALDIKO KONTUEN AZTERKETA ETA ONARPENA

Lehendakari jaunak hartu du hitza eta 2001 ekitaldiko Aurrekontuaren eta Ondarearen Administrazioaren kontuak aztertzeari ekingo zaiola esan du, guztiak ere jendaurreko erakustaldian jarriak eta Kontuen Batzorde Bereziak

aztertutakoak, Batzorde honek dagokion espedientean agertzen diren erregelamenduzko txostenak igorri dituelarik.

Idazkariak txosten horien irakurketa azkarra egin ondoren, eta kontu horiek erregelamenduzko ereduak betetzen dituztela eta behar besteko frogagiriak dituztela egiaztatuta, horiei buruzko informazio zabala eskuratu, eta bertaratutako jaun-andreek eskatutako azalpen guztiei erantzuna eman zaielarik, aho batez onartu egin dira.

Bertara etorritako jaun-andreei ohartarazi zaie 781/1986 Legegintza Errege Dekretuaren 460-5 artikuluari jarraiki, nolana ere, Kontu Epaitegiaren kanpo fiskalizazioaren menpe jarri behar direla eta aipatu artikulua horren aplikazioan, kontuak onartzeagatik erabakiak, akats eta oztopoen zuzenketak hala nola okerrak konpontzeko prozedurak, betearazleak izango direla.

3.- 2002 URTEKO AURREKONTU OROKORRA

Ekonomi Batzordean aztertuz gero eta, Hazienda Lokalak erregulatzen dituen Abenduaren 28ko 39/1988 Legearen 149-4 artikulua eta Erregimen Lokaleko Oinarriak Arautzeko Apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 90.1 artikulua eta Erregimen Lokaleko gaitan Apirilaren 18ko 781/1986 Erret Dekretu Legearen 126.1 artikuluen arabera, 2002 urterako Aurrekontu Orokorra aurkeztu da, honela geldituaz:

SARREREN EGOERA

Kapitulua	Izena	Pezetak	Euroak
1	Zuzeneko Zergak	14.929.280	89.726,83
2	Zeharkako Zergak	1.000.000	6.010,12
3	Tasak eta Bestelako Zergak	5.128.961	30.825,68
4	Transferentzi Arruntak	51.547.168	309.804,72
5	Ondare Sarrerak	462.072	2.777,10
7	Kapital Transferentziak	1.032.516	6.205,55
SARRERAK GUZTIRA		74.100.000	445.350,00

GASTUEN EGOERA

Kapitulua	Izena	Pezetak	Euroak
1	Pertsonal Gastuak	28.993.434	174.254,05
2	Gastuak Ondasun Arrunt eta Zerbitzuet	21.581.600	129.708,03
3	Finantza Gastuak	1.450.124	8.715,42
4	Transferentzi Arruntak	12.545.822	75.401,91
6	Inbertsioak	5.893.474	35.420,49
9	Pasibo Finantzarioak	3.635.551	21.850,10
IRTEERAK GUZTIRA		74.100.000	445.350,00

2002 urterako Aurrekontu Orokorra eta bera Egitaratzeko Oinarriak, aho batez onartuak izan dira.

PLANTILLA ORGANIKOA ETA LANPOSTUEN ZERRENDA

Erregimen Lokaleko Oinarriak erregulatzen dituen Apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 90.1 eta 90.2 artikuluek eta Erregimen Lokaleko gaietan indarrean dauden legezko xedapenen Testu Bateragina onartuz, apirilaren 18ko 781/1986 Erret Dekretu Legegileko 126.1 artikuluko koerlatiboak erabakitzen dute, Udal Korporazioei dagokiela, Aurrekontuaren bidez, urteko Plantilla Organikoa eta Lanpostu Zerrendak onartzea, funtzionari, pertsonal laborala finko eta behin-behineko pertsonalari erreserbatuta dauden lanpostu guztiak barne izan behar dutelarik.

2002 URTERAKO PLANTILLA ORGANIKOA

KARRERAKO FUNTZIONARIENTZAT GORDETAKO LANPOSTUAK

IZENA	Lanp. Kop.	T.6/89 L. 43. Art.	Egoera	Ohar.
IZAERA NAZIONALEKO FUNTZIONARIAK Idazkari-Kontuhartzaitzaren Azpimaila IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA	1	B	J	70%
ADMINISTRAZIO OROKORRAREN MAILA Laguntzaileen Azpimaila ADMINISTRAZIO OROKORREKO LAGUNTZAILEA	1	D	J	
ADMINISTRAZIO BEREZIAREN MAILA Azpimaila Teknikoa * Mota: Erdiko Teknikariak GIZARTE LAGUNTZAILEA	1	B	J	36%
Administratiboa * Mota: Laguntzailea LIBURUTEGIKO LAGUNTZAILEA	1	D	J	40%
Zerbitzu Bereziak *Mota: Ofizioetako Pertsonala ZERBITZU ANITZETARAKO OFIZIALA	1	D	J	
GARBITZAILEA	1	E	J	
LAN PERTSONALI GORDETZAKO LANPOSTUAK	Lap.Kop.	Lanbide Maila	Taldea	Egoera
ETXEZ ETXEKO LAGUNTZAILEA	1	6	E	BB

2002rako LANPOSTUEN ZERRENDA

KARRERAKO FUNTZIONARIOEI ERRESERBATUTAKO LANPOSTUAK

Lanp. Izena	Eskala	Azpi eskala	Titulazioa	S. P	Dedik azioa	Taldea	Maila	Osag. Espez.	H.E	Derr. Data	Egoera	Best.
IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA	Administ Orokorra	F.H.N .	P Zientziak edo Zuzen. Diplom.	C	%70 Berez .	B	23	10.031,00	4	91-02-06	Aktib.	Agrup .
ADMINISTRARI LAGUNTZAILEA	Administ Orokorra	LAGUN TZAIL	Eskola Graduatu a edo LH1	C	%100 Berez .	D	14	10.947,16	3	91-02-06	Aktib.	Funtz.
GIZARTE LAGUNTZAILEA	Administ Berezia	TEKN .	Diplomaduna	C	%36 Berez .	B	17	3.828,16	3	91-12-01	Aktib.	Funtz.
OFIZIALA	Administ Berezia	ZERB. BEREZ	Eskola Graduatu a edo LH1	C	%100 Berez .	D	16	12.544,98	2	91-02-06	Aktib.	Funtz.
LIBURUTEGIKO LAGUNTZAILEA	Administ Orokorra	LAGUN TZAIL	Eskola Graduatu a edo LH1	C	%40 Berez .	D	13	4.204,48	3	96-04-01	Aktib.	Funtz.
GARBITZAILEA	Administ Berezia	ZERB. BEREZ	Eskola Ziurtagiria	C	%100 Berez .	E	8	6.802,88	2	92-05-01	Aktib.	Funtz.

**BEHIN-BEHINEKO LAN PERTSONALARI ERRESERBATUTAKO
LANPOSTUAK**

Lanp. Izena	Eskala	Azpi eskala	Titulazioa	S.P	Dedikazioa	Taldea	Maila	Osag. Espez.	H.E	Derr. Data	Egoera	Best.
ETXEZ ETXEKO LAGUNTZAILEA	Administ Berezia	ZERB. BEREZ	Eskola Ziurtagiria	C	%26,67 Berez.	E	6	Ez	2	91-02-06	Aktib.	BB

Izena	Soldata	Lan Lekuagatiko Osakina	Osakin Espezifikoa	Hirurtekoak	Besteak	Guztira
IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA	587,05	389,17	716,50	148,81	58,37 Agrupazioa	1.899,90
ADMINISTRARI LAGUNTZAILEA	531,83	311,47	781,94	79,18		1.704,42
GIZARTE LAGUNTZAILEA	317,11	144,27	273,44	24,25	37,64%	759,07
LANETAKO OFIZIALA	531,82	359,37	896,07	63,24		1.850,50
LIBURUTEGIKO LAGUNTZAILEA	220,01	118,93	300,32	6,54	41,37%	645,80
GARBITZAILEA	385,05	149,33	485,92	18,84	79,31%	1.081,88

4.- 2002 URTEKO LANGILEEN HITZARMENA

2002 URTERAKO, LIZARTZAKO UDALERAKO

KOMENIO KOLEKTIBORAKO PROPOSAMENA

1. Art.- Komenio honen sinatzaileek (Administrazioa eta Langileen Asanblada) errekonozitzen dute, honen oinarriko egitura, Komunitate Autonomoko Langileen enplegu kondizioen 2001.eko Akordio Arautzailearen Testu osoa izango dela.

Errekonozimendu honek suposatzen du, komenioak afektatutako pertsonalaren enplegu kondizioetan gutxieneko maila gisa ulertzen dutela bi aldeek aipaturiko testua, eta beraz, inolaz ere ezin izango dela aipaturiko testuan iadanik lortutako eskubide laboralak baino beheragoko kontzepturik edo hauek murrizten dituenik ezarri eta aplikatu.

Aurrekoari jarraituz eta Lizartzako Udaleko Langileentzako 2002ko Komenio Kolektibo gisa, bi aldeek sinatzen duten eta betetzera eta errespetatzera konprometitzen direnaren edukin-definizio generiko gisa, ondorengo eskubide laboral bloke hauek zehazten dira:

2002 URTERAKO PLATAFORMA ERREIBINDIKATZAILEA

1. Blokea.- 2001eko Administrazio Lokalaren Akordio Erregulatzailearen testu orokorra eta Udaleko Komenio Kolektiboa.
2. Blokea.- Testu horri buruz, azken urte hauetan Udal langilegoak aurkeztutako zenbait plataforma erreibindikatzailetan, jasotako eta onartutako hobekuntza eta aplikazioak.
3. Blokea.- 2002rako Komunitate Autonomo mailan, Administrazio Lokaleko akordio erregulatzailean agertzen diren hobekuntza guztiak (2001eko testuaz gain), Lizartzako Udal langile guztien aplikaziorako izango dira, aurtengo urtarrilaren lehen ez geroztik.
4. Blokea.- Bloke hau, Udal honetako langileek egindako plataforma erreibindikatzailaren zenbait puntuk osatzen dute:

a) Pertsonal Maila

Hitzarmen honek, 2002ko plantilla osatzen eta osatuko duten langile guztiengan izango du bere eragina. Hitzarmen hau berdin aplikatuko da denentzat, inongo diskriminaziorik gabe, nahiz eta langile batek bere zerbitzua kontratatu laboral bezela bete edo funtzionari moduan.

b) Denboraldia eta Iraupena

Hitzarmen honek, 2002ko Urtarrilaren 1etik, 2002ko Abenduaren 31 bitarte dirauko du, epe hau, 2003 urteko hitzarmen kolektiboa indarrean jarri artean luzatuko delarik.

c) Lan Orduak

Udal langileek, urte osoan zehar gehiengoz, 1.568 ordu bete beharko dute.

d) Ordainketa Taula

2002ko komenioaz afektaturik dagoen guztiak, ordainketa gordinetan igoera hau izango du: IPC – 2,7%, Administrazio Lokaleko Akordio Erregulatzailleak jasotzen duen igoera langilego guztiari ziurtatuz.

e) Kilometrajea

Lan orduetan egiten diren kilometroak, kilometro bakoitzeko 40 pezta ordainduko da.

f) Bizia, Istripu eta Elbarritasun Asegurua

Gaur egun dagoen asegurua mantenduko da.

g) Gizarte Erantzunkizunaren Asegurua

Lizartzako Udala, edozein langilei bere funtzioak betetzerakoan sorlekioken gizarte erantzunkizunaren arriskuaz arduratuko da, haren garrantziaren proportziozko kopuruan.

Alkateak, Pertsonalaren Debatuei entzun ondoren, dagozkien polizen kondizioak erabakiko ditu.

Edozein langile, bere lanak betetzerakoan auzitan sartzea gertatuko balitz, Udalak bere defentsarako giza medioak jarri beharko ditu.

h) Urteko Oporrak

2002 urtean zehar, langile guztiak 24 lanegun (Asteleheneretik Ostiralera kontatuta) opor hartzeko eskubidea izango dute, hauek ordainduak izango direlarik.

i) Osasun Errebisioa

Udalak, langile guztiei urtean behin, Osasun Errebisioa egingo die. Gutxienik, odol eta pixaren analisia, Rayos X eta Minbiziaren diagnostiko prekoza, egingo dira.

Luzatzen diren txostenak, langile bakoitzari banatuko zaizkie.

Lizartzan, 2002ko Urtarrilaren 1ean.

2002 URTERAKO ORDAINKETA OROKORRAK

IGOERA: 2,7 %

<u>NIBELA</u>	2001 URTEAN	2,7%	GUZTIRA	BPFZO
30	3.438,25	92,83	3.531,08	24%
29	3.342,37	90,24	3.432,61	24%
28	3.246,46	87,65	3.334,11	24%
27	3.150,55	85,06	3.235,61	23%
26	3.054,64	82,47	3.137,11	23%
25	2.958,75	79,88	3.038,63	22%
24	2.858,91	77,19	2.936,10	22%
23	2.766,93	74,70	2.841,63	21%
22	2.671,07	72,11	2.743,18	21%
21	2.576,12	69,55	2.645,67	20%
20	2.479,27	66,94	2.546,21	20%
19	2.383,17	64,34	2.464,19	20%
18	2.287,46	61,76	2.349,22	19%
17	2.191,55	59,17	2.250,72	19%
16	2.095,66	56,58	2.152,24	19%
15	1.999,81	53,99	2.053,80	18%
14	1.903,85	51,40	1.955,25	18%
13	1.807,95	48,81	1.856,76	17%
12	1.724,71	46,56	1.771,27	17%
11	1.642,06	44,33	1.686,39	16%
10	1.558,27	42,07	1.600,34	15%
9	1.475,06	39,82	1.514,88	15%
8	1.397,63	37,73	1.435,36	14%
7	1.320,21	35,64	1.355,85	14%
6	1.243,90	33,58	1.277,48	13%

2002 URTEKO HIRURTEKOAK

IGOERA: 2,7 %

HIRURTEKOA	2001 URTEAN	2,7%	GUZTIRA
A	48,23	1,30	49,53
B	39,17	1,05	40,22
C	35,20	0,95	36,15
D	28,42	0,76	29,18
E	25,12	0,67	25,79

2002 URTEKO KOMENIOKO ORDUAK.....		1590,00
URTARRILA	22 x 7,25	159,50
OTSAILA	20 x 7,25	145,00
MARTXOA	17 x 7,25	123,25
APIRILA	21 x 7,25	152,25
MAIATZA	22 x 7,25	159,50
EKAINA	20 x 7,25	145,00
UZTAILA	20 x 7,25	145,00
ABUZTUA	20 x 7,25	145,00
IRAILA	20 x 7,25	145,00
URRIA	23 x 7,25	166,75
AZAROA	20 x 7,25	145,00
ABENDUA	19 x 7,25	137,75
<u>URTEKO ORDUAK 244 x 7,25</u>		1769,00

URTEKO ORDUAK	1769,00
<u>OPORRAK 24 LANEGUN x 7,25</u>	174,00
2002 URTEKO LAN-ORDU ERREALAK	1595,00
HITZARMENEN LAN-ORDU ERREALAK	1590,00
SOBERAN	5,000

2002 URTEKO KOMENIOKO IDAZKARIAREN KALENDARIOA		
URTARRILA	22 x 6,75	148,50
OTSAILA	20 x 6,50	130,00
MARTXOA	17 x 6,50	110,50
APIRILA	21 x 6,50	136,50
MAIATZA	22 x 6,50	143,00
EKAINA	20 x 6,50	130,00
UZTAILA	20 x 6,50	130,00
ABUZTUA	20 x 6,50	130,00
IRAILA	20 x 6,50	130,00
URRIA	23 x 6,50	149,50
AZAROA	20 x 6,50	130,00
ABENDUA	19 x 6,50	123,50
URTEKO ORDUAK 244 x 6,50		1591,50

URTEKO ORDUAK	1591,50
OPORRAK 24 LANEGUN x 6,50	156,00
2002 URTEKO LAN-ORDU ERREALAK	1435,50
HITZARMENEN LAN-ORDU ERREALAK	1590,00
BILERETAKO ORDUAK	154,50

LIBURUTEGIKO LAGUNTZAILEAREN LAN-ORDUAK

2002 URTEKO KOMENIOKO ORDUAK.....		1590,00
URTARRILA	22 x 3	66,00
OTSAILA	20 x 3	60,00
MARTXOA	17 x 3	51,00
APIRILA	21 x 3	63,00
MAIATZA	22 x 3	66,00
EKAINA	20 x 3	60,00
UZTAILA	20 x 3	60,00
ABUZTUA	20 x 3	60,00
IRAILA	20 x 3	60,00
URRIA	23 x 3	69,00
AZAROA	20 x 3	60,00
ABENDUA	19 x 3	57,00
URTEKO ORDUAK 244 x 3		732,00

URTEKO ORDUAK	732,00
OPORRAK 24 LANEGUN x 3	72,00
2002 URTEKO LAN-ORDU ERREALAK	660,00

1769 urteko orduak
100

732 Lan Orduak
X

x= 41,37%

GIZARTE LAGUNTZAILEAREN LAN-ORDUAK

2002 URTEKO KOMENIOKO ORDUAK.....		1590,00
URTARRILA	14 x 4,5	63,00
OTSAILA	12 x 4,5	54,00
MARTXOA	10 x 4,5	45,00
APIRILA	12 x 4,5	54,00
MAIATZA	13 x 4,5	58,50
EKAINA	12 x 4,5	54,00
UZTAILA	13 x 4,5	58,50
ABUZTUA	12 x 4,5	54,00
IRAILA	12 x 4,5	54,00
URRIA	14 x 4,5	63,00
AZAROA	12 x 4,5	54,00
ABENDUA	12 x 4,5	54,00
URTEKO ORDUAK 148 x 4,5		666,00

URTEKO ORDUAK	666,00
OPORRAK 14 LANEGUN x 4,5	63,00
2002 URTEKO LAN-ORDU ERREALAK	603,00

1769 Ordutik
100tik

666 Lan-Ordu
X

x= 37,64 %

ETXEZ ETXEKO LAGUNTZAILEAREN ORDUTEGIA

2002 URTEKO KOMENIOKO ORDUAK.....		1590,00
URTARRILA	2 x 1 20 x 2	42,00
OTSAILA	20 x 2	40,00
MARTXOA	18 x 2	36,00
APIRILA	21 x 2	42,00
MAIATZA	22 x 2	44,00
EKAINA	20 x 2	40,00
UZTAILA	21 x 2	42,00
ABUZTUA	21 x 2	42,00
IRAILA	20 x 2	40,00
URRIA	23 x 2	46,00
AZAROA	20 x 2	40,00
ABENDUA	19 x 2	38,00
URTEKO ORDUAK 247 x 2		492,00

URTEKO ORDUAK	492,00
OPORRAK 24 LANEGUN x 2	48,00
2002 URTEKO LAN-ORDU ERREALAK	444,00

1769 Ordutik
100tik

492 Lan-Ordu
X

x= 27,81 %

GARBITZAILEAREN LAN-ORDUAK

2002 URTEKO KOMENIOKO ORDUAK.....		1590,00
URTARRILA	22 x 5,75	126,50
OTSAILA	20 x 5,75	115,00
MARTXOA	17 x 5,75	97,75
APIRILA	21 x 5,75	120,75
MAIATZA	22 x 5,75	126,50
EKAINA	20 x 5,75	115,00
UZTAILA	20 x 5,75	115,00
ABUZTUA	20 x 5,75	115,00
IRAILA	20 x 5,75	115,00
URRIA	23 x 5,75	132,25
AZAROA	20 x 5,75	115,00
ABENDUA	19 x 5,75	109,25
URTEKO ORDUAK 244 x 5,75		1403,00

URTEKO ORDUAK	1403,00
OPORRAK 24 LANEGUN x 5,75	138,00
2002 URTEKO LAN-ORDU ERREALAK	1265,00

**1769 Ordutik
100tik**

**1403,00 Lan-Ordu
X**

x = 79,31 %

Idazkariak hitza harturik dio, 2002rako onartzen diren, Estatuko Aurrekontu Orokorraren, Abenduaren 28ko 13/2000 Legearen arabera, Sektore Publikoan sartzen diren langileen ordainketen igoera, 2%a baino handiagoa ezin daiteke izan.

Horren arabera, Lizartzako Udaleko Langileentzako, 2002 urterako planteatzen den 2,7%ko igoera ez da legezkoa.

Idazkariak eginiko oharpenaren jakinean, 2000-2001erako ARCEPAFEk onartutako baldintzak ezarriaz, 2002 urterako, Lizartzako Udaleko Langileentzako igoera, 2,7%koa ezartzea, aho batez onartua izan da.

5.- TESORERIKO MAILEGUAREN LUZAPEN ESKAERA

2002ko Uztailean, Euskadiko Kutzarekin sinatuta dagoen, Tesorerikoko Maileguaren amaiera iritsiko da.

Udal honek dituen kontuak aztertu ondoren, konturatzen gara, epe horretan, kobratzeko dauden laguntzak sartzan ez badituzte behintzat, itzultzerik ez dela izango.

Horren arabera, proposatzen da:

Euskadiko Kutzari, Tesorerikoko Mailegu hori, beste urte batetarako luzatzea eskatzea.

Proposamena aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartua izan da.

6.- ABERRI EGUNERAKO ADIERAZPENA

2002ko ABERRI EGUNA – ESUKAL HERRIA ERAIKITZEN

Garçur, martxoak 31, igandea, Aberri Eguna da, 1931tik, egun hau gure Herriaren eguna izan da, eta, beste herri askotan egiten den antzera, gure nazioaren berrespen baketsu eta koletiboa ospatuko dugu gaur. Egun honekin, euskaldun guztiak batzea dugu helburu, geure nortasunaren adierazpen askea eginaz eta geure herriaren biziraupen borondatea alaiki aldarrikatuaz.

Euskal Herria nazioa da eta nazio bat dagozkion eskubide politikoak ditu. Eskubide horiek aldarrikatzera dator gaurkoan UDALBILTZA.

Herri bezala, nazio bezala irautea eta garatzea dugu helburu, ez baitira makalak, XXI mendi honetan, etorkizunari begira, ditugun erronkak. Izan ere horu dugu aurrez aurre, munduan zehar, ekonomi eta kultur alorreko globalizazioaren fenomeno. Globalizazio honek errotik astintzen ditue gure gisako herri baten ekonomia, kultura, hizkuntza eta gizartea bera ere. Eta uniformizazio fenomeno horri erantzuteko beharrezkoa da herri honek bere baliabide politiko, instituzional,ekonomiko edo kulturalak zehaztu eta bideratzea. Horretxegatik gatoz, hain zuzen ere, Aberri Eguna ospa dezaten gonbitea luzatzera hiritar guztiei.

Horretan ari gara, Euskal Herriaren nazio kontzientzia demokratikoan sakonduz, herri bezala aurrera egiteko lanabesak martxan jartzen. Aipatu erronka horiei ekiterakoan Euskal Herriak bidean aurkitzen dituen zailtasunak ez dira nolanhikoak, eta horiek gainditu eta ezabatzea da gure helburua, euskal herritar guztion arteko eztabaida demokratikoari bide emanaz, gure arteko harremanak skaonduz eta herri honen etorkizun politiko, kultural, ekonomiko nahiz hizkuntza alorrekoari bermea eskainiz, ingongo indarkeria edo inposaketa jarrerarik gabeko giroan.

Horregatik, ozenki adierazi nahi dugu euskal herritar guztien borondate librearen gainean soilik eraiki daitekeela Euskal Herria nazio moduan, inolako aurrebaldintza eta mujgarik gabeko eztabaida demokratiko eta polikoaren bitartez. Herritar eta ideaia anitzez osaturiko herri honetan dauden proiektu politiko guztiak leku izango duten eskenatoki demokratiko eta baketsuaren alde lan egiteko konpromisoa hartzen dugu gure gain.

Hausnarketa hauen inguruan burutu dugu aurtengo Aberri Egunaren deialdia, alegia, udal izaeran oinarritzen den euskal instituzio nazional honek eraikuntza demokratikoari begira hartutako ardurak berresteko asmoz. Ospakizun egun da, baina baita konpromisozkoa ere, euskal gizartearen etorkizuna bakean, justizian eta askatasunean eraiki nahi dugulako. Euskal Herriaren eguneroko eraikuntzan orain artean egindako bideari jarraitzeko borondatea agertzen baitugu, gaurko zitaren bidez.

Aurtengo Aberri Egunak, bada, euskal gizartearen aniztasun sozial eta politikoa oinarritzat hartzen duen nazio eraikuntza libre eta demokratikoari zabaltzen dio leihoa, alderik alde, inposaketa eta zapalketa orori aurre eginez, irekitasuna ikurtzat harturik. Gatazka politikoa eta honen ondorio larrirentzat behin betiko soluziobidea mahai gainean jarriz, alegia, burujabetza eta lurraldetasun eskubideak ezagutuak izango dituen Euskal Herriaren onarpena.

Beraz, herrigintza guztion eginbeharra da, eta guztioz behar gaitu, inor baztertu gabe.

Udalbiltzak hala uste du eta hauxe dio: etorkizuna euskal hiritarren eskuetan dago, herri honen eraikuntza nazional eta demokratikoaren eskuetan. Horregatik, dei egiten diegu hiritar guztiei, Aberri Eguna guztion artean alaioki ospa dezagun.

2002ko Aberri Eguna dela eta Udalbiltzak aurkeztutako adierazpena, aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartua izan da.

7.- MOZIOAK

EUSKAL PILOTAREN IRUÑEKO MUNDUKO TXAPELKETA

2002ko abuztuaren 21etik 31 bitartean Euskal Pilotaren Munduko Txapelketa jokatu da Iruñean. Baldintza normalizatuetan Euskal Herriko herritar guztiontzat oso pozgarria litzatekeen albiste honek egun ez gaitu pozten. Albiste pozgarria litzatkeela diogu, euskal pilota Euskal Herriak nazioarteko ondare unibertsalari eman dion kultur altxorra izanik, Munduko Txapelketa Euskal Herrian ospatzeak guk asmatutako kirol Euskal Herritik bertatik mundura zabaltzeko beste aukera bat gehiago eskainiko ligukeelako. Baina albiste horrek egun ez gaituela pozten dio9gu, antolaketa ez dutelako euskal federazioek egin, espainiarrak baizik, euskal pilotari eta zaletuen eskubideak larriki urratuz.

Euskal Herriak ez du txapelketan bere selekzio nazionalarekin parte hartzerik izanen. Euskal pilotariek ez dute euskal selekzioarekin kokatzeko aukerarik izanen, espainiarra eta frantziarra inposatzen baitzaiei, biri diren herrialdearen arabera. Euskal zaletuek ez dute euskal selekzioaren alde txalo egiteko aukerarik izanen.

Euskal pilota Euskal Herriak sortutako kirola izanik eta Munduko Txapelketa Euskal Herrian bertan jokatzeko delarik, iraingarriztat hartzen dugu euskal selekzioari txapelketan jokatzeko ate guztiak ixtea.

Hori dela medio, proposatzen da:

- 1.- Herri gisa, eta areago joko honen sortzailea denez, munduko txapelketa honetan euskal herriari bere selekzio nazionalarekin parte hartzeko eskubide osoa dagokiola aldarrikatzea.
- 2.- Bide beretik, Euskal Herriari nazioarteko federazioko kide izateko eskubide osoa dagokiola, beste kideek dituzten eskubide berak izanik.
- 3.- Pilotariei nahi duten selekzioarekin jokatu ahal izateko eskubidea dagokiela, euskal herrikoek euskal selekzioarekin aritzeko aukera bermatua izan beharko luketelarik.
- 4.- Udal akordio hau euskal herriko nahiz nazioartekoko euskal pilota federazio guztiei igorriko diegu.

Euskal Pilotaren Iruñeko munduko txapelketa dela eta, aurkeztutako mozioa, aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batea onartua izan da.

LEGEDI ANTITERRORISTAREN EZABAKETAREN ALDEKO EKIMENAREN OINARRIZKO PUNTUAK

Lizartzako Udalak, egun Euskal Herritarren aurka ematen diren tortura kasuak onartezinak direla deritzogu. Gure hainbat eta hainbat herrikidek jasandako sofrikarioak ez du konponbiderik, baina etorkizunean sofrikario hau inork jasan ez dezan posible da. Bide horretan, Udal honek, Estatu espainiarrari datozen 9 puntutan proposaturiko neurriak hartu ditzan eskatzen diogu, eta hau errealitate izan dadin ahalegin guztiak egingo ditugunaren konpromezua hartzen dugu, horrela soilik lortuko baititugu aurrerantzean atxilotuei dagozkien eskubideen errespetua eta bermea.

- 1.- Auziperatze Kriminaleko Legeriaren 520 bis. artikularen ezabaketa. Honek, pertsonaren atxiloketa eta inkomunikazioa 5 egunetara luzatzea baimentzen baitu.
- 2.- Auziperatze Krimilaeko Legeriaren 527. artikularen ezabaketa, atxilotutako pertsonari dituen eskubideak murrizten baitizkio. Oinarrizkoa dela ulertzen dugu atxilotuaren senitartekoek, bera aurkezten den lekuaren eta egoeraren berri edukitzeko eskubidea. Era berean, diligentzia judizial eta polizialetan atxilotuak aukeraturiko abokatuaren presentzia ezinbestekotzat ikusten dugu, hala nola, diligentzien ondoreneko uneetan pribatua hizketaldia edukitzeko eskubidea.
- 3.- Atxiloketak irauten duen artean, pertsonaren osasun fisikoa nahiz psikikoa bermatu dadin, atxilotuak bere kabuz aukeraturiko sendagileek ikus dezatenaren aukera izan behar luke, hauek, atxilotuaren inguruko azterketak egin ditzaten, beti ere atxilotuaren egoeraren jakitun izateko.
- 4.- Auziperatze Kriminaleko Erreforma, 1988.eko Maiatzaren 25ean onartu zen, eta bertako Lege Organikoaren 384 bis artikuluan, Entzutegi Nazionalak dituen konpetentziak bertan behera uztea eskatzen dugu. Honela, atxilotuen instrukzioa eta auziperatzea, euren jaioterriko auzitegien esku geratuko litzateke.
- 5.- “Habeas Corpus” delakoaren ezarpena eta erabilera. Modu honetan epailea bene benetan arduratuko litzateke atxilotuaren egoeraz.

“Habeas Corpus”a zuzentzen duen L.O. 6/1984 legearen 2. artikularen bigarren parrafoaren ezabapena. Artikulu honek, atxilotuaren inkomunikazioa agindu duen epaile beraren eskutan uzaten baitu Habeas-Corpus”aren erabilera.

- 6.- Poliziek aurrera eramandako diligentzia ororen deuseztapena, baldin eta atxilotutako pertsonaren osasun psikikoa nahiz fisikoki kaltetua izan bada. Zentzu honetan, ezinbestekoa jotzen dugu, torturak salatu dituen pertsonaren inguruko ikerketak, atxiloketa aginduari eta instrukzioari atxikitzea.
- 7.- Epaile eta agintari judizialen aldetik sekoneko ikerkuntza ahalbideratzea tortura testigantzen aurrean. Ipintzen den une beretik argitu dadila salaketa egiazkoa denentz, honetarako, sendagileen froga eta neurriak erabiliaz. Oinarrizkoa da, bai behintzat ikerkuntzak dirauen artean, salaturiko zaindarien behin-behineko kargu uztea ziurtatzea.
- 8.- Egoitza polizialak bideo kameraz hornitzea, atxilotuari ematen zaion tratua berri izateko, atxiloketaren nondik norakoa jarraitu ahal izateko, atxilotuaren intimitatea bermatuaz, egiten diren diligentzien ezagutza edukitzeko.....
- 9.- Tortura kasuak eragiteagatik zigortuak izan diren funtzionarien aldeko indultuen desagerpena. Gaur egunean, hauetariko gehinek zigortuak izan diren kargu berberean jarraitzen dute edota goragoko postuak eskaini dizkiete sari gisara. Gobernuak nahiz Erregetzak adostutako praktika honekin torturaren erabilpenerako bideak ireki besterik ez dira egiten.
- 10.- Erabaki honen berri herriari eta komunikabideen bidez, Euskal Herri guztiari ematea.

Torturaren aurkako taldeak aurkeztutako mozioa, aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartua izan da.

GIZARTE ZERBITZUAK

Gizarte Zerbitzuen atalean funtzioen zehaztapena arautzen duen Eusko Jaurlaritzaren 155/2001 Dekretuan oinarrituz Foru Aldundiak proposatu duen hitzarmenaren aurrean, eta gizarte zerbitzuen baitan finantziario sistemak sortzen dituen ondorioak kontuan hartuz –dagokion txosten teknikoan ikusi bezala-, honako akordio hau onartzea proposatu da:

Foru Aldundiko Gizartekintzak gizarte zerbitzuen antolaketarako mahai gainean jarri duen hitzarmen proposamenaren balio gabezia aldarrikatzea, Foru Aldundia eta Udalen arteko eskumenen banaketa argiten eta errazten ez duelako, eta era berean, epe ertain-luzera begira, finantziario arazo larriak sortaraziko dituelako.

Udal hau eta Gipuzkoako gainontzeko Udalak hartzen ari diren eskumenen finantziabideei buruzko azterketa bat egiteko eskatzea Gipuzkoako Foru Aldundiari eta Gizartekintzari.

Gizarte Zerbitzuen antolaketarai buruzko proposamena, aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartu izan da.

8.- ALKATETZAREN DEKRETUAK

JUAN ARRATE LULUAGA

Lartzalde Auzoko, 12an Berasanea Baserria eraberritzeko, aurkeztutako proiektu eta Udaleko Teknikariek luzatutako txostenaren arabera, baimena eman da.

JOSEFA BENGOETXEA ALTUNA

U-1 aldean kokatuta dagoen, SAMASAGASTI izeneko terrenoa, 465 m² dituenaren, bereizketa egiteko baimena.

AGUSTIN GOIKOETXEAUNDIA PAGOLA

U-1 aldean kokatuta dagoen, IRUNZI ZELAIA eta ARRANPA izeneko terrenean, 385 m² eta 1.052 m² dituztenen bereizketa egiteko baimena.

RAMONA OLAETXEA KARRERA

U-1 aldean kokatuta dagoen, 3.058 m² dituenaren bereizketa egiteko baimena.

MARIA CONSUELO AGIRREBARRENA RUIZ DE LA CUESTA

U-1 aldean kokatuta dagoen IRUNZIZELAI izeneko terrenean, 780 m² dituenaren bereizketa egiteko baimena.

CASTOR OLAETXEA GARAIKOETXEA

U-1 aldean kokatuta dagoen, IRUNZUBI izeneko terrenean, 634 m² dituenaren bereizketa egiteko baimena.

FERMIN EIZAGIRRE TREKU

U-1 aldean kokatuta dagoen, IRUNZELAI izeneko terrenean, 1.063 m² dituenaren bereizketa egiteko baimena.

Eta hitzegiteko beste gairik ez dagoenez, Alkateak, Batzarra amaitutzat eman du,